

UDALBILTZA[®]

ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK 2004



EUSKAL HERRIKO UDAL ETA UDAL HAUTETSIEIEN BILTZARRA

ERAKUNDEAREN 5. URTEURRENA DELA ETA, ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

2004ko martxoaren 4an

Adiskidea, agur t'erdi,

Orain dela 4 urte, 1999ko irailean, UDALBILTZA euskal erakunde nazionala sortu genuen, udalerrietatik abiatuta Euskal Herriko zazpi herrialdeen arteko elkartasun, lankidetzeta eta elkarrekiko loturak indartzeko xedez. Saihestu behar izan ditugun oztopo guztiengatik ere, uste dugu egindako lana nabarmena eta garrantzitsua izan dela. Guztien giza eskubide guztiak defendatzen ditugu, errespetuz jokatzeko dugun, baina aldi berean argi dugu, Euskal Herri gero eta integratuagoa sortzeko asmoa proiektu demokratiko, zilegi, moderno, Europazale eta etorkizunerakoa dela.

Etengabeko defentsa horren erakusgarria da Erakunde honen 5 urteko bizian zehar egin dituen Adierazpen Institutuzionalak. Eta atseginez aurkezten dizkizuegu liburu batetan bilduak.

Besterik gabe, har ezazu gure agur beroa

Julian EIZMENDI ZINKUNEGI
UDALBILTZAren Lehendakaria

UDALBILTZA[®] EUSKAL SELEKZIOAREN OFIZIALTASUNAREN ALDE

2004ko maiatzaren 23an

Udalbiltzak, maiatzaren 23an, Agurainen ospatuko den euskal selekzioaren II. jaian parte hartuko du euskal selekzioa babesten

UDALBILTZAren iritziz Euskal Herriari, nazio desberdindua den heinean, nazioartean bere nortasunarekin jarduteko eskubidea dagokio. Barrura begira, kirol-jarduera osoaren kudeaketa bertako kirol-erakundeei dagokie. Euskal Herriari zergatik onartzen zaio bigarren eskubide hau eta ukatzen lehena?

Ikuspuntu demokratikotik ez du inolako justifikaziorik.

Ugari dira kirol-mota desberdinetan estatu independente izan gabe berezko selekzio nazionalekin diharduten Europako herriak, hala nola Ingalaterra, Eskozia, Gales, Faroe irlak, Kanaleko irlak, Ipar Irlanda eta abar. Zergatik ukatu gure herriari Europako beste hainbati onartzen zaion eskubide bera?

Euskal Herriak kirolaren kudeaketan burujabe izatea eskatzen du. Herri eta Nazioa den heinean, eskubide osoa du, are gehiago herritarren gehiengoaren borondatea norabide berean doanean.

Burujabe izateko grina hori euskal selekzioen inguruan islatzen da bereziki: hogeituz hamar urte luzez futboleant, azken hiru urte hauetan euskal selekzioen egunetan eta euskal selekzioen aldeko beste zenbait ekitalditan.

Nabarmen azaldu da euskal selekzioen ofizialtasuna herri honen bihotzean guztiz txertatuta dagoen sentimendu beroa dela. Euskal selekzioen ofizialtasuna aldarrikatzeak, beraz, herri honen sentimendu sakonenekin bat egiten du.

Baina ez dira instituzio publikoak aldarri hori bideratzeko eragile bakarra; kirol erakundeek bere egin behar dute eskakizun hori. Bide horretan, euskal federazioek nazioarteko federazio ezberdinei zuzendu behar diete aldarrikapena, herritarrengandik ahalik eta atxikimendu handiena jaso ondoren. Instituzio publikoen babesa lagungarria da, nola ez, baina ez dagokie hauei protagonismo nagusia.

Bukatzeko, zera esan: UDALBILTZAren ustetan euskal selekzio ofizialak behar ditugu, bai, noski, baina kirol guztietan, eta hori bermatzea guri dagokigu, euskaldun guztioi. Eta ofizialtasunaren alde nazioarteko kirol-federazioekin borrokatu behar da.

Agurain, 2004ko maiatzaren 23an

Peio IPARRAGIRRE
UDALBILTZAren Zuzendaritza kidea
Aguraingo Zinegotzia

**EUSKO LEGEBILTZARREKO ERAKUNDE ETA BARNE
GAIETARAKO BATZORDEAN "EUSKADIKO ERKIDEGOAREN
ESTATUTU POLITIKOAREN PROPOSAMENA" EZTABAIDATZEKO
PONENTZIAN JULIAN EIZMENDI, UDALBILTZAren BURUAK
EGIN ZUEN AGERRALDIA**

Gasteiz, 2004ko ekainaren 16an

Jaun-andreok, egunon guztioi,

Bihotz-bihotzez eskertu nahi dizuet guztioi Eusko Legebiltzarrak berriro ere UDALBILTZA-ri eman dion aukera, Euskadiren etorkizun politikoaren gainean dugun ikuspegiaren berri emateko.

2002ko ekainaren 12an, UDALBILTZA-k parte hartu zuen Erakunde honek berak sortutako Autogobernuari buruzko Batzorde Berezian. Egun hartan, Euskal Herriaren orainaren eta etorkizunaren gaineko gure hausnarketa azaldu genuen. Orduan egin genuen ekarpenaren amaieran adierazi genuen amaitua dela inposizioaren garaia. XXI. mendearen hasera honetan hiritarrok pertsona guztiontzako eskubide guztien errespetuaren eta Herrien atxikipen eta borondate aske eta demokratikoaren ardatzean oinarrituta antolatzen dugula geure burua eta gaur egun garena eta orain arte lortu duguna errespetatuz eta hortik abiatuz.

Biziki pozten gara egun hartatik Euskal Erakundeek urrats sendo eta ausartak eman dituztelako, konponbide politiko eta demokratikoetan oinarrituta Euskadi normalizatzeko eta baketzeko benetako prozesu baten garapenerako baldintza egokiak sortzera eraman gaitzaketan neurrien azterketan sakontzeko bidean. Prozesu horren funtsezko mugarrietako bat da, argi eta garbi, Lehendakari jaunak Eusko Jaurlaritzaren izenean egin zuen aurkezpena, 1979an egin zen Gernikako Estatutua eraberritzean oinarrituta Elkarbizitzarako Proposamen edo Itunaren gainekoa, hain zuzen ere.

Ez da nire asmoa Proposamenak dituen artikulua guztien azterketa xehatua egitea hemen. Aldiz, eskatu nahi dizuet utz diezadazuela han jasoak dauden atalik garrantzitsuenak hausnartzen, hori zuen hausnarketarako lagungarri izan dakizuelakoan.

UDALBILTZArentzat, Euskadiko Estatutu Politikoaren proposamena:

- Erabat demokratikoa da eta une egokian aurkeztua,
- Euskadin dugun egoera politiko-instituzionala argi eta garbi ezagutzen du eta errespetatzen,
- Funtsean dituen oinarri europazaleekin garbi-garbi lotzen da,
- Euskal hiritarrontzat ekonomia eta gizarte arloan garapen hobe sortzeko baldintza egokiak sortuko ditu,
- Ezin du politikoki egon Euskadiko gizartearen gehiengoak zehaztu edo lortu nahi dituenak negoziatu nahi ez dituzten jarrera edo posturen menpe,
- Herriaren berrespen edo kontsulta behar du eta hau egiteak eta han aterako den emaitzak, edozein eratakoa izanik ere aterako dena, ez dio ekarriko inolako hausturarik Euskadiko gizarteari,
- eta, ziur gaude horretaz, Euskadin hain bihotzez nahi ditugun normalizazio eta baketzearen oinarriak jarriko ditu.

Proposamen erabat demokratikoa eta une egokian aurkeztua.

Aurten dugu Gernikako Estatutua erreferendumean onartu zeneko 25. urteurrena.

Estatutu hori gauzatu eta abian jartzeak emaitza ezberdinak eman ditu. Batetik,

- Euskal Herriak Europako eta munduko herrien artean duen berezko nortasuna sakondu eta garatzeko balio izan du. Ondorioz Euskal Herria indartu egin da heldutasun, auto-estima eta konfiantzan, eta balio izan du euskal hiritarrok Europako eta munduko gainerako herrieekin era ireki eta solidarioan Herri gisa bizirik irauteko borondate, ahalmen eta potentzialitatearen kontzientzia izan dezagun.
- ongizate sozio-ekonomikoa eta barne zein kanpo solidaritatea Europa mailako parametro modernoetara garatzeko balio izanda, gaur egunean oraindik ditugun gabeziak ahaztu gabe.

Baina, bestalde:

- etsipen maila handia dago Estatutua, eta honekin batera Euskal Herriaren nortasun eta ongizatearen garapena, murriztua izan delako hura erabat ez garatu izanagatik eta hark zuen Itun izaera desitxuratu egin delako Epaitegi Konstituzionalak

emandako sententziekin, Oinarrizko Legeen eta Lege Organikoen garapenarekin eta gure Estatutuak bere-bereak zituen eskumenak Europarentzako integrazio prozesuaren bidez Estatuak berriro beretzat hartu dituelako;

- etsipena sortu da, era berean, Euskadik ez duelako itundutakoa beteko denaren segurtasun politiko eta juridikorik. Lege Organiko bat betetzea, hala baita Gernikako Estatutua, Estatuko Gobernuak halako edo horrelako konpetentzia ematearen borondate hutsaren menpe egon da eta egoten jarraitzen du, gehiengo eta gutxiengoan akordio politikoetan oinarrituta.

Gainera mundua, Europa eta Euskadi bera izugarri aldatu dira azken 25 urte hauetan. Europan eta mendebaleko munduan gaude ainguratuak, eta hor Herrien arteko harremanak, nortasuna, ekonomia, gizarteko harremanak eta kultura gero eta abiadura handiagoz ari dira garatu eta eboluzionatzen eta konpondu beharreko arazo, erronka eta zailtasun berriak sortzen dituzte. Eta orain 25 urte sortu zen testu bat, Gernikako Estatutuaz ari naiz, egokitu egin behar da.

Estatuek, Estatu diren neurrian, *izaera orokorreko eskumena* bere esku izanik, errealitate berri hauei aurre egin diezaiekete eta legeak atera. Euskadik ez. Baina, hala ere, euskal hiritarrek mugimendu-askatasuneko marko bat behar izaten eta eskatzen jarraitzen dute beren autogobernu mailan, errealitate berri horietara egokitzeko eta bere nortasuna, ongizatea eta Europako eta munduko gainerako herriekiko solidaritatea eta irekitasuna garatzen jarraitzeko.

Horregatik guztiagatik, UDALBILTZAn pentsatzen dugu iritsi dela euskal autogobernua parametro hauek guztiak berriro aztertzeke unea eta iruditzen zaigu Proposamena erabat egokia, legitimoa eta demokratikoa dela.

Euskadiko errealitate politiko-instituzionala argi eta garbi ezagutzen du eta errespetatzen, eta oinarrian dituen oinarri europazaleekin garbi-garbi lotzen da

Gure iritzian, Proposamenaren atarikoetan aipatzen dira Euskadiren barne eta kanpo harremanak Itunaren eta Elkarbizitzaren mugalorroetan garatzeko marko egoki eta modernoa eratzeko bide emango duten funtsezko oinarri eta giltzarriak.

Gure iritzian, bada Euskal Herri bat eta, ondorioz, bada euskaldunok gaur egun bizi garen errealitate politiko-instituzionala errespetatuz bere etorkizuna era aske eta demokratikoan erabakitzeke eskubidea ere. Gure ikuspuntutik, hau da normalizazio politikoa lortu eta *euskal gatazka* gainditzeko giltzarria.

Giltzarri moderno eta eguneratua da, mundializazio eta globalizazio prozesuekin, Europan txertatzeko prozesua barne, erabat koherentea. Euskadik, bere nortasuna eta izaera askatasunez indartuz, etengabe handitzen ari den mundializazio edo globalizazio prozesura egokitu, bereganatu, ekarpenak egin eta prozesuan era aktiboan parte hartzeko giltzarria da.

Europako Batasunak historia eta sufrimendu bat du atzetik. Europan batasuna sortzearen bultzatzaile nagusia Bake eta Normalizazio Politikorako gogoia izan da. Azken mendean, bi mundu-gerrak jarri dituzte elkarren aurka Europako estatuak eta Estatu horiek beroiek, gaur egun, elkarrekin lanean ari dira, elkarri lagunduz, *metodo komunitarioari* esker: atxikipen eta elkartze askea/librea, indarkeriarik eza, inposiziorik eza, askatasunez eta demokratikoki adierazitako borondateak elkartzea, eta Europako hiritarren borondate eta zerbitzura jarritako egitura eta organizazio-modu politikoak asmatu eta abian jartzeko irudimena. Horregatik, bistabistakoa da Europako politikak eta metodo eta oinarriak baketzeko eta normalizazio politikorako politikak ere badirela.

Hau hala izanik, beraz, zergatik Europara bakea ekartzeko balio izan duten oinarri eta metodoek ez dute balio Euskadi eta Espainiaren arteko harremanak normaltzeko?

Euskal hiritarrontzat ekonomia eta gizarte arloan garapen hobea sortzeko baldintza egokiak sortuko ditu,

Iruditzen zait adostasuna ia erabatekoa dela euskal autogobernuak gure ekonomia eta gure eredu sozial eta solidarioa modernotzen modu erabakiorrean lagundu duten politika publikoak garatzen lagundu digula osatzerakoan. Zuek guztiok dakizuen moduan, gaur egun, euskal hiritar baten errenta Europako batez bestekoaren %105ekoa da.

Beraz, euskal hiritarrek bete-betean asmatzen dute argi eta garbi barneratua duten hori adierazten dutenean: autogobernuak ongizate ekonomiko eta soziala ere adierazi nahi duela.

Eta arrazoia erraz eta logikoa da: gero eta elkarlotuagoa dagoen eta gero eta abiadura handiagoan aldatzen ari den mundu batean, ezinbesteko garrantzia du ingurune ekonomiko egokitzeko aukera eskainiko diguten tresnak izatea, gure aktore ekonomiko eta sozialek nazioarteko eta Europako eszenatoki berrietan lehiakorak izaten jarraitzeko. Beste era batera esanda: Euskadik autogobernurako lantresna berriak eta gehiago behar ditu, gure enpresak azkartasun eta malgutasunez moldatzen jarraitu ahal izan dezaten, eta, horrela, aurrera aterako zaizkien erronka berriei erantzun diezaieten.

Gure iritzian, gaur egungo Gernikako Estatutuak dituen mugak eta garatzeko zailtasunek esan nahi dute ekonomia eta gizarte arloan ongizateari galga jartzen zaiola. Hala Estatutua ez delako bete, nola estatutuaren testua mugatu, garatzen utzi ez, eta haren potentzialitateak hutsaren hurrengo bihurtzen dituzten lege organikoen eta epaitegien sententziengatik.

Horregatik, eta apeta/guraria politiko bat edota gatazkaren bila ibiltzeko elementu izan gabe, Euskadik autogobernu ahalmen handiagoa eta bi aldeei segurtasun juridikoa emango dien harreman esparru berria behar du Estatuarekin, Euskal Erakundeok gure baliabideen erabilera hobetzen jarraitu ahal izan dezagun, euskal hiritarren ongizate ekonomiko eta sozialaren alde.

Ildo honetatik, iruditzen zaigu Euskadiko Estatu Politikorako Proposamena proposamen ona dela ekonomiaren aldetik handitzen jarraitzeko eta gure solidaritate-proiektu soziala garatzen jarraitzeko.

Badira behin eta berriro adierazten ari zaizkigunak Proposamena onartu eta abian jartzen bada hondamendia eta pobrezia ekonomiko eta soziala etorriko zaizkigula. Ez dago ezer errealitatetik urrunago. Ahots horiek ahaztu egiten dira gaur egunean mundu gero eta elkarlotuago, irekiago eta malguago batean aurkitzen garela. Arantzelen hesiak gero eta txikiagoak dira, edota ez daude Europako Batasunean eta Europako Batasunaren eta komunitatetik kanpo Europan diren zenbait herrialderen artean.

Lehendakariak Eusko Jaurlaritzaren izenean egin duen proposamena irakurrita, ikusten da ez duela sortu nahi, inolaz ere, horma eta hesi ekonomikorik, oso bestela baizik. Eta besterik dioena, ikuspegi estutik eta XIX. mendekoak ziren egitura inperialisten ikuspegitik ari da. Herritarren artean *beldur ekonomikoa, hondamendiaren izua* zabaldu nahi dute baina arrazonamendu horiek ez dira zuhurtzia apur batekin, testuak aurrean direla eta inguratzen gaituen errealitatea kontuan izanik, egindako analisi txikiaren ere aurre egiteko gauza.

Proposamena jarraibide argi eta positiboa da gaur egungo Gernikako Estatutuak dituen muga eta ezintasunei erantzuteko, 25 urteren ondoren ez baitzikigu eskaintzen gure hazkundera eta gure solidaritate-eredu soziala bultzatzen jarraitu eta, horrela, XXI. mendean bete-betean gauden honetan, Euskadik dituen erronka eta arazo ekonomiko berriei erantzuteko behar ditugun autogobernu tresnak.

Ezin du politikoki egon Euskadiko gizartearen gehiengoak zehaztu edo lortu nahi dituenak negoziatu nahi ez dituzten jarrera edo posturen menpe

Eusko Jaurlaritzak egin duen Proposamenaren tramitazioa akatsik gabea da ikuspegi juridikotik. Hala bermatzen du, besteak beste, orain gutxi Epaitegi Konstituzionalak hartu duen erabakiak, Proposamen hori gelditu eta haren eztabaida eta debatea ito nahi zuten bi errekurtsio tramitera ez onartzea erabaki duenean.

Elkarrizketa legitimoa, eztabaida, ideien kontrastea galarazi nahi zen; eta hori sinestezina da demokrazian. Areago, demokraziaren beraren funtsa eta muina ukatzea da.

Gure iritzian, neurri hauek ezin izango zuten elkarrizketa galarazi. Besteak beste, gizarteak berak eskatzen duelako. Gizarteak konponbideak eskatzen ditu dauzkagun arazoentzako, Euskadiren normalizazio eta baketzea esate baterako.

UDALBILTZArentzat, bai nazioarteko hainbat oinarri juridikok, bai Gernikako Estatutuak berak, Eskubide Historikoen erreserbarekin, bai Espainiako 1978ko Konstituzioak, Lehenengo Xedapen Gehigarriarekin, euskarri juridikoa ematen diote Proposamenari eta haren edukiari. Kontua ez da haustea, baizik eta Euskadiren eta Estatuaren arteko harremanak birkonpontzea, elkarrenganako

errespetuan, itunean eta elkarrizketan oinarrituta. Gaurko egunera egokitutako harremana berreraikitzea, beharrei egokitua eta euskal hiritar guztion borondate eta erabaki aske eta demokratikoa errespetatuz.

Gertaerei aurre hartuz, bada esaten ari denik Espainiako Konstituzioaren bidez *paper huts* bihurtuko dela Legebiltzar honetatik aterako den testua. Ez dela inolako elkarrizketarik sortuko eta edozein eratako aurrerapena oztopatuko dela, konstituzioaren testuak ematen duen *indarraren* bidez.

Jarrera hau, Ponentzia honen beronen baitan hasi berria den eztabaida bera mesprezatzea da. Baina, gainera, jarrera itxia agertzen du horrek, *aurrera ihes egitea* eta norberaren errealitatea ez ikusi ez onartu nahi izatea. Eta puntu honetara iritsita gogorarazi nahi genuke Espainiako Konstituzioa Euskadin hautesleen %30,8ak bakarrik berretsi zuela. Eta esan nahi dugu euskal biztanleriaren gehiengoan oinarritzen dena edota Legebiltzar honek berak onartzen duena arbuiatu eta mesprezatzea; azken batean, euskal autogobernua Konstituzioak dirudenez jarriko lituzkeen mugetara murriztea, juridikoki justifikatzen ahalegindu daiteke, baina politikoki Estatuak Euskadin duen legitimitatea izugarri ahultzen duen errua da.

Herriaren berrespen edo kontsulta behar du eta kontsulta hau egiteak eta han aterako den emaitzak, edozein izanik ere azken hau, ez dio ekarriko inolako hausturarik Euskadiko gizarteari.

Ezinbesteko iruditzen zaigu euskal hiritarrok gai horien guztien gainean aske eta demokratikoki erabakitzeke kontsulta irekia eginez parte hartzea.

Puntu honen gainean ere badira aukera honen aurkako jarrera eta jokabideak. Areago, legeak ere sortu dituzte hura sustatu nahi lukeen edozeini askatasuna kentzeko. Paradoxikoa iruditzen zaigu, eta oinarri demokratiko eskasekoa, burugabekeria hori bultzatzea.

Horrez gain, arrazoitzen da Proposamenak berak eta egin ahal izango litzatekeen kontsultak gizartean haustura ekar lezakeela.

Ez gaude ados baieztapen horrekin. Herritarrek tamaina honetako gai batean partehartze zuzena izatea obligazioa eta eskakizuna da.

Estatistikek hala frogatzen dute: kontinente mailako ikuspegitik begiratuta, hauteskundeetako partehartzea beherantz egiten ari da nabarmen Europa osoan, politikarekiko atxikipena ahuldu egin da nolabait eta hautatzerako garaian dagoen aldakortasunak muturreko joerak/estremismoak elikatzen dituzten mugimendu populistak sortzea dakar.

Alabaina, zehaztu behar dugu gure kontinenteko hainbat lurraldetan egin diren azken hauteskundeetatik ateratzen den elementurik kezkarriena, agian, demokrazia ordezkatzaillearen nolabaiteko krisiarena dela.

Badirudi informazio-gizarte moderno batean, herritarrak inguruaren errealitateari buruz duen informazio ugaria eta hobe eskuratzeko aukera bat-batean duen gizarte honetan, ez dela jada onartzen elite politikoen arteko kontzertazio sistema bakarrik, eta demokraziaren ideala ez dela mugatzen demokrazia ordezkatzaillearen eredu klasikoetara. Herritarrek, gizon zein emakume, era aktiboan parte hartu nahi dute eta hitza hartu.

Politikarekiko atxikipenik eza, ez al da agian izango munduan diren arazo handiak (gerra, gosea edota ingurumenaren hondamendia) menderatzeko gauza ez den eta, aldi berean, herritarron benetako kezkek ere alde batera uzten dituen teknokratismo eta elitismo politikoari herritarrek egiten dioten gaitzespena?

Herritarra *gai publikoez* arduratzeko erarik erraz eta zuzenena, haiei hitza ematea da.

Demokraziaren eguneroko praktika ez da orain mende batekoa edota orain 50 urtekoa bera. Gaur egungo hiritar burujabe eta ikasiak badirudi ez duela onartzen bere ordezkaritza hautatuen gain uztea oso-osorik.

Erreferenduma ez da tresna bat bakarrik, nortasun-faktore bat baizik, Suitzak erakusten duen moduan, esate baterako. Konfederazio Helbetikoak erreferenduma maiztasunez erabili duen neurrian, Suitzako herritarrak identifikatu egin dira tresna horrekin, bai eta aukera hori praktikan jartzeko aukera eman dien sistema konfederalarekin ere.

Horregatik guztiagatik, mendebaleko gizarte moderno eta aurreratu baten baitan aurkitzen garenez, Proposamenari buruz herri-kontsulta egitea legitimitaterik handiena eskainiko liokeen heldutasun demokratikozko zeinua izango litzateke, edozein izanik ere haren emaitza. Uste dugu euskal hiritarrak arduratsuak direla, badutela behar adinako heldutasuna eta zentzu demokratiko eta konbibentziala, aterako litzatekeen emaitza arazo gehiegirik gabe asumitzeko.

Gai honetan hitza ukatzea, berriz, atzerakada demokratiko garbia izango litzateke eta Estatuak Euskadin duen deslegitimazioa handitzeko bakarrik balioko luke.

UDALBILTZAtik dei bat egin nahi diegu hemen ordezkatuak dauden indar politiko guztiei, eztabaidan parte hartu dezaten era aktibo eta eskuzabalean, proposamenak eginez, argumentuak eta kontra-argumentuak emanaz, testuak eta ideiak ekarriz mahaira; eta hori guztia, XXI. mendearen hasiera hauetan Euskadin, Europan eta munduan mugitzen ari garen errealitatearen kontzientzia garbia izanez, eskuzabaltasun eta ikuspegi-maila altuz.

Jakin ezazue guztiok, gure iritzian, Euskal Herriak onetsi egingo duela mahaian konponbideak jartzen ahalegintzen dena eta gaitzetsi egingo dituela iheseke jarrera suntsitzaile eta negatiboak.

Bukatu egingo dut. Eta bukatu, Javier de Landaburuk idatzitako hitz batzuekin:

**EZ DA MUNDUAN ESTATURIK NO HAY ESTADO EN EL MUNDO
MENDEREN MENDETAN AURRE QUE PUEDA HACER FRENTE
EGIN DIEZAIOKEENIK BERTAN ETERNAMENTE A UN PUEBLO QUE
TXERTATZERIK NAHI EZ DUEN NO QUIERE INTEGRARSE EN ÉL,
HERRI BATI, ESTATU HORI OSO POR MUY FUERTE QUE SEA EL
INDARTSUA ETA HERRIA OSO ESTADO Y POR MUY PEQUEÑO
TXIKIA IZANIK ERE. QUE SEA EL PUEBLO. LA
ELKARBIZITZA EZIN DA CONVIVENCIA NO SE IMPONE, SE
INPOSATU, BILATU BAIZIK. BUSCA;**

Eta Landaburuk amaitzen du Euskadik Espainiarekin nahiko lukeen harreman-esparruari buruz bere buruari erantzunez:

**EUSKALDUNEK ESANGO DUTE LOS VASCOS LO DIRÁN, PORQUE
HORI, UKA EZIN DAKIEKEEN LO ÚNICO QUE NO SE LES PUEDE
GAUZA BAKARRA HORI ESATEKO NEGAR ES LA OPORTUNIDAD DE
AUKERA EMATEA BAITA. ETA MANIFESTARLO. Y EN ESE CASO,
HALA, DEMOKRAZIAK BEHARTU DEMOCRACIA OBLIGA, ESA
EGITEN GAITU, BORONDATE VOLUNTAD HA DE SER
HORI ERRESPETATU EGIN BEHAR RESPETADA.
DA.**

Eskerrik asko

ADIERAZPENA, AUZITEGI NAZIONALAK EZKER ABERTZALEKO UDAL HAUTETSIEN BILKURAREN AURKA IREKI DUEN SUMARIOARENGATIK

2004ko abuztuaren 31n

Auzitegi Nazionalak ezker abertzaleko Udal Hautetsien Bilkuraren aurka irekita duen sumarioan, hurrengo egun hauetan bertako zenbait kide deklaratzera deitu duenez, ETAko kide izatearen akusaziopean, UDALBILTZAK, zera adierazi nahi du:

1.- Bere benetako arbuioa Estatuko Botereen eskutik sortua den dinamikagatik. Inkisizio berria suertatzen ari den dinamika honen arabera, ez da gehiago ETArengatik ingururik. Orain dena da ETA.

Egiteko modu honetan errugabetasun presuntziorik ez da aplikatzen. Euskal gizartearen arlo ugari, kultura zein politika eta giza zenbait ordezkari, erakunde, enpresa eta beraien zuzendari zein babesle beste inolako frogarik gabe arbuiatu, iraindu, boikotatu eta azkenik kriminalizatu egiten dira. Komunikabide zein enpresak interbenitu, beraien arduradunak auziperatu eta atxilotu.

Prozesu hauen ezaugarri dira ziurtasun juridiko eza, epaiketarik gabe urtetako sortzen duten defentsa gabezia eta behin betiko epairik eza. Prozesu hauetan demokrazi batek berezko dituen eskubide zein askatasunak urratu eta baliogabetu egiten dira, urraketa hauek jasaten dituzten pertsonengan sortzen diren kalteak konponezinak bihurtuz.

2.- Bere uste osoa, Euskal Herrian bakea eta elkarbizitza ez direla ez inposaketa, ez inkisizio, ez erantzun bortitzen eskutik etorriko. Ezta norberak defendatzen duen proiektu politikoaren lorpena ere. Hauek zalantzarik gabe modu eta bide demokratiko zein hiritarren borondatearen eskutik etorriko dira.

Euskal Herrian, a 2004ko abuztuaren 31n